



Xorinoak Kaloian
Xorinoak Kaloian
Autoekoizpena, 2015

Txio basatiak

XORIÑOAK KALOIAN Iruñeko talde gazteak lehen diskoa kaleratu du. Eneko, Mikel, Julen eta Iñaki taldekideak txikitatik dira lagunak. Xorinoak Kaloian sortu aurretik, musikaren munduan, euskal folklorea eta beste hainbat bide jorratu zituzten, eta metalak batu ditu, metal kutsuko doinuak jotzeko elkartu dira. *Xorinoak kaloian XVIII*. mendeko poema anonimoa da, zubereraz idatzia.

Gitarraren riff eta punteo bortitzak eta rock doinu gogorrak entzun daitezke haien kantueta, erritmo biziak eta astunak. Indar handiz jotzen eta kantatzen dute, beren musika tresnak oso ongi erabiltzen dituzte eta kantuen leloak ongi zaintzen dituzte.

Hitzetan, kritika eta salaketa ere gordin egiten dute, txorakeriarik gabe. Hainbat gai dituzte hizpide. Besteak beste: musikaren industria, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea, duintasuna, zapalkuntza, justizia eza, agintariak, boterea eta esnatzeko eta altxatzeko beharra.

Kantuak entzunez gero, besteak beste, Black Sabbath talde mitikoa eta 90eko hamarkadako talde batzuk atsegin dituztela sumatzen da. Doinu gogorrak eta astunak jotzen dituzten zenbait talde, eta beste batzuk ere bai: Rage Against The Machine, Pantera, Slipknot, Limp Bizkit, Korn, Dut, Negu Gorriak eta Berri Txarrak taldearen lehen diskoak.

Berrizko (Bizkaia) Lorentzo Records estudioan grabatu dute diskoa, Aitor Ariño teknikariarekin. Denak batera joz, eta hori nabari da kantuak entzutean, doinu trinkoa ederki gauzatu baitute, doinu gordina, basatia eta potoloa.



Metal kutsuko doinuak eskaintzen ditu Iruñeko taldeak lehen diskoan.

Xorinoak Kaloian taldeko kideek beraiek sortu dituzte diskoko zortzi kantuen musika eta hitzak, *Gisbertaren Balada* eta *Teknokratak eta Langileak* kantuen hitzak izan ezik. *Gisbertaren Balada* poema originala portugesez idatzi zuen Pedro Abrunhosak eta euskarazko itzulpena Joxemari Sestorainek egin du, Txantreako Euskaldunon Biltoki elkarteak osatutako *Hitzza bide, bizia xede* (Pamiela, 2012) bildumarako. *Teknokratak eta Langileak* berriz, Hedoi Etxartek idatzitako *Simplistak* (Susa, 2012) poema liburitik hartu dute.

Ez dute ezer berririk asmatu, baina haize berri bat ekarri dute doinu gogorren eta astunen mundura. Egia esan, euskaraz kantatzen duten mota horretako talde asko ez daude.

Musikari gazteak dira eta ilusio, kemen eta grina handiz ari dira. Beren egitasmoan sinesten dute, eta kantuak sortzen jarraitzeko eta jendaurreko emanaldiak egiteko gogotsu daude, kaiolatik ihes egin nahi duten txoriak bezala. ■

Joxi Ubeda